

2004ko ABENDUAREN 13ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta lauro abenduaren hamahiruan goizeko zortziak direnean, Alkatea: Joseba Egibar Artola; Udalkideak: Patxi Ezkiaga Ormazabal, Xabier Arrese Arratibel eta Jose Antonio Imaz Insausti; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN AGIRIA, LIZARTZAN SUPERMERKATU BAT ZEHARKAKO KUDEAKETA BIDEZ, USTIATZEKO ETA LOKALAREN EKIPAMENDUA GAUZATZEKO EMAKIDAREN KONTRATAZIORAKO LEHIAKETA ARAUTZEN DUTENAK

I.- EMAKIDAREN HELBURUA

Lizartzako supermerkatu baten ustiapena, lehiaketa baten bidez, esleitzeko baldintzak arautzea da agiri honen helburua.

II.- ESLEIPENDUNAREN KONTURA DAGOEN EKIPAMENDUA

Instalazioetarako ekipamendua ere da agiri honen helburua. Ekipamenduak bitarteko hauek eduki beharko ditu:

Eranskinean agertzen direnak.

Esleipendunak lokalaren ekipamenduaren 50% zenbatekoa ordaindu beharko du. Dena den, ordainketa egin duela aldez aurretik frogatuta, aipatutako kopurua itzuli egingo zaio Udaltzari ordaindu beharreko hileko kanonetako konpentsazioaren bitartez, harik eta guztirako zenbatekoa ordaindu arte.

Udala kontratuan aipatutako ekipamenduaren jabe izango da une oro.

III.- EMAKIDAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

Gauzatuko den kontratua zerbitzua kudeatzeko emakida administratibo bat izango da, Zerbitzuetako Araudiko 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko (2000ko ekainaren 16an onetsia) 154. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Kontratuak Baldintza Juridiko eta Ekonomiko Administratiboan Agiri honetan jasotakoa bete behar du, baita onets daitezkeen eta honi eragiten dioten bestelako Araudiak ere.

Baldintza Agiri honetan aurreikusi ez denerako, hauek bete beharko dira: Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko arauak, 2001eko urriaren 12ko Legearen Erregelamendu Orokorra eta toki araubideari buruz indarrean dagoen araudia, besteak beste, apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, eta 781/1986 Errege Dekretua, toki araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateratua onetsi zuena.

Lizartzako Udala da Supermerkatuaren eta horri erantsitako instalazioen Zerbitzu Publikoaren titularra. Aipatutako zerbitzua zeharka ematen du. Zerbitzu hori Udalaren Zerbitzu Publiko gisa kalifikatuta dago, une oro, eta bere eskumena Udalarena da; beraz, horrek une oro zerbitzuaren kudeaketa kontrolatu eta ikuskatzea justifikatzen du.

IV.- EMAKIDAREN EPEA

Emakida 10 urterako emango da, lehiaketa esleitzeko kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori urtero luzatu ahal izango da, alderdietako batek espresuki amaiera ematen ez badio, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago, eta beti ere kontratuaren eta luzapenen iraupena batuta 50 urteko gehieneko epea gainditzen ez duenean. Kasu horretan urtebeteko luzapen bakoitzean esleipendunek ordaindu beharreko kanona aldatutzat joko da, urteko KPIaren aldaketaren arabera.

V. ESKAINTZAREN TASA. EMAKIDAREN KANONA

Kanona edo eskaintzaren tasa izango da esleipendunak Korporazioari hileroko ordaindu beharreko kopurua. Lehiatzaileen aldetik gorantz hobetu ahal izango den eskaintzaren tasa hileko 300 €-koa da, gastuak eta zergak kontuan hartu gabe.

Kanon hori konpentsatu egingo da harik eta esleipendunak ekipamenduan inbertitutako dirua erabat amortizatu arte. Horretarako, ekipamenduaren 50%-eko zenbatekoa ordaindu beharko du.

Korporazioak, egokitzat jotzen duenean, esleipendunari aurretiaz amortizatu ahal izango dio hark eginiko inbertsioak ordaintzeko geratzen den kopurua, horrela eskatutako kreditua erregularizatuko da eta ezarritako kanona ordainduko da.

Inbertsioa amortizatutakoan, kanona berrikusiko da, beti ere zerbitzua ematearen eta emakidaren bideragarritasunaren arteko oreka ekonomikoa bilatuko delarik.

VI. TARIFAK

Emakidaren indarraldian emakidadunak Zerbitzu Publikoaren jarduera garatuko du, jatorriz administratiboa den jardun-esparru bat bere esku utzi delarik. Beraz, Zerbitzua kudeatzeko eskubideak ditu, jabetza eskubideak izan ezik eta hirugarrenei kalterik egin gabe, baina badauka zerbitzua emateko

babes administratiboa jasotzeko eskubidea eta Udalak eskuordetutako polizia-eskumenez baliatzekoa.

Emakidadunak hartuko du zerbitzua kudeatzeko arriskua eta emakidadunak ez eskubiderik izango obretan edo zerbitzuetan izandako galera, matxura edo kalteengatiko kalte-ordainik jasotzeko, halabeharrezko arrazoirik ez badago behintzat, edo Udalak, bere kontura, emakidaren helburua aldarazten ez badu, edo Udalak kontratuaren berezko esparrutik kanpo hartutako erabakiak ez badira; kasu horietan eragindako kostu handiagoa Udalak partekatu beharrekoa da.

VII. FIDANTZA

Esleipena jakinarazten denetik zenbatzen hasita 15 eguneko epean, behin betiko fidantza jarri beharko du esleipendunak, 2.000 €-ko zenbatekoan, gauzatuko den kontratutik eratorritako betebeharrak guztiak beteko dituela bermatzeko, eta bai uzten diren instalazioen bitartekoetan eragin daitezkeen kalteei buruzkoak ere.

Behin betiko fidantza eratu ondoren, zehazten den egunean esleipendunak agiri bat sinatu beharko du, non alde bien artean adostutako kontratua jasoko baiten.

VIII. ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK

Esleipendunak eskubide hauek izango ditu:

- 1.- Bere esku jartzen diren ondasunak eta instalazioak erabiltzea, kontratua betearazteko behar den moduan, eta esleipenaren epe barruan.
- 2.- Emakidaren orekari eusteko konpentsazio ekonomiko egokia eskuratzea, Korporazioak ezarritako zerbitzuen ustiapenean aldaketarik badago eta aldaketa horiek kostuak handiarazten badituzte, erabaki hori herri-intereseko

arrazoiengatik hartu bada, eta emakida berreskuratu edo zerbitzua kentzen bada.

- 3.- Kontratua esleitzen denetik 15 eguneko epean instalazioak eta ekipamendua egoera onean daudela berrikusi eta egiaztatzea, izan ere epe hori igaro ondoren Agiri honetako arauak eta baldintzak ezarriko dira eta, ondorioz, ez da inolako erreklamazio motarik onartuko eta esleipendunaren kontura izango da antzeman daitekeen akats oro, eraikuntzak berezko dituenak izan ezik.
- 4.- Egokitzen jotzen duen publizitatea egitea, beti ere indarrean dauden arauak ezarritako muga orokorren barruan eta Udalaren oniritzia duela. Barrutiaren barruan jartzen den publizitateak Lizartzako Udalak ezarritako arauak bete beharko ditu.

IX. EMAKIDUNAREN BETEBEHARRA

Esleipena jasotzen duen entitatea arduratuko da emakidako zerbitzua ustiatzeaz eta zerbitzuak bere kabuz ustiatu beharko ditu. Prestazio osagarriak azpikontratatu ahal izango dira, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 171. artikuluan jasotakoarekin bat eta horretarako, alde aurretik Lizartzako Udalaren kontratazio-organoak baimena beharko da. Edozelan ere, azpikontratutako enpresak beharrezko materialak eduki beharko ditu eta jarduerak eta zerbitzuak egiteko beharrezko kualifikazioa eta titulazioa duten administrariak eta teknikariak izan beharko ditu.

Baldintza Agiri honetatik edo ezar daitekeen araudi orokorretik eratorritakoak alde batera utzita, esleipendunaren edo emakidadunaren betebeharrak bereziak dira:

- 1.- Jarduerak garatzea, bere langileen antolaketa eta zuzendaritza bere gain hartuz, eta oker egindako zerbitzuek eragindako kalte guztiak ordaintzera behartuta dago, bai bulego eta guneei dagokienez bai altzariei eta esleipenean sartzen diren gainerako ekipamenduei dagokienez.

- 2.- Laneko segurtasun eta higie arloan indarrean dauden xedapenak betetzea, eta horretarako beharrezko organoa eratu beharko du, aipaturako xedapenak betetzen direla zaintzeko berariazko funtzioa izango duena eta dagozkion betebeharrak bere gain hartuko dituzten langile teknikoak izendatuko dituena, beti ere horren berri Lizartzako Udalarari emanaz.
- 3.- Energia, gasa, ura eta bestelako kontsumoak ordaintzea.
- 4.- Instalazioak eta ekipamendua egoera onean edukitzea eta kontratuaren indarraldia bukatutakoan, edo kontratua amaitu edo deuseztatzean, horiek jaso ziren egoera berean itzultzea.
- 5.- Gune, instalazio eta ekipamenduetan edo zerbitzuan hobekuntzarik edo aldaketarik ez egitea, aldez aurretik Lizartzako Udalaren baimena jaso ez badu. Lizartzako Udalak erabakiko du ekimena egokia ote den eta, hala badagokio, horrek izango dituen ondorio ekonomikoak.
- 6.- Lizartzako Baldintza Agiri honetan jasotako hobekuntza edo aldaketez gain, zerbitzua hobetearren Udalak agindutako beste hobekuntza edo aldaketa batzuk ezartzea.
- 7.- Zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz sor daitezkeen kalte eta galerak aurre egitea Udalaren aurrean eta hirugarrenen aurrean. Horretarako hirugarrenentzako erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat sinatuko du.
- 8.- Garatu beharreko jarduerari buruzko sektoreko araudia zehaztasun osoz betetzea beti, dagozkien lizentziak eta baimenak izapidetu eta eskuratzea barne.

Baimenak edo lizentziak izapidetzea, bai jarduera-espeditenteei buruzkoak, bai instalazioari buruzkoak edo behar diren guztiak. Proiektuaren ordainsariak eta abar bere kontura izango dira. Udalaren betebeharra izango da esleipendunari dituen agiriak ematea eta beharrezko baimenak azkarrago edo merkeago lortzen lagunduko diotenak hari ematea.

9.- Esleipendunak ordezkari edo ahaldun bat izendatu behar du eta bera arduratuko da Udalak izendatuko duen pertsonarekin harremanak izateaz.

10.- Esleipendunak zerbitzua eta erabiltzaileekiko arreta euskaraz eman beharko du.

Batez ere, garrantzitsua da jendearekin harreman zuzena izango duen pertsonak bere eginkizunak betetzeko euskara-maila egokia izatea.

X.- UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

A) Eskubideak

Lizartzako Udalak eskumen hauek izango ditu, legez bidezkoak direnei kalterik egin gabe:

1.- Interes publikoko arrazoiengatik gomendagarri baldin bada nahi adina aldaketa agintzea emakidan eta zerbitzuan eta, besteak beste:

.- Aldaketak egitea zerbitzu horren kalitatean, kopuruan, denboran edo lekuan.

2.- Emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzea, udal zerbitzuen bidez. Horretarako zerbitzua, obrak, instalazioak eta lokalak ikuskatu ahal izango ditu, baita emakidaren helburuarekin, zerga-betebeharrekin edo gizarte segurantzarekin zerikusia duen dokumentazioa ere. Halaber, behar bezala bideratzeko edo bideratzen jarraitzeko aginduak eman diezazkioke.

3.- Errua emakidadunarena den kontuan hartu gabe, hark ez badu zerbitzua eskaintzen, edo ezin badu eskaini, kudeaketa aldi batean bere gain hartzea.

4.- Emakidadunak arau-hausterik egingo balu, hark beharrezko zuzenketak egiteko agintzea.

5.- Emakida berreskuratzea.

6.- Zerbitzua kentzea.

7.- Emakida bahitzea, Toki Korporazioen Zerbitzuetako Araudian ezarritakoarekin bat.

B) Betebeharrak

Udalak betebeharrak hauek izango ditu:

- 1.- Emakidunari babes egokia ematea, zerbitzua behar bezala eman dezan.
- 2.- Zerbitzuak bere gain hartzeak emakidunari eragin ahal dizkion kalte eta galerengatik kalte-ordaina ematea, berau interes publikoaren arrazoiengatik izango balitz eta ez emakidunaren erruarengatik.
- 3.- Emakida berreskuratuz gero edo zerbitzua berreskuratuz gero, emakidunari kalte-ordaina ematea, gai horri buruz indarrean dauden arauarekin bat.
- 4.- Aseguru-poliza bat sinatzea, instalazioek suteengatik, uholdeengatik edo hondamendiengatik izan ditzaketen kalteei aurre egiteko behar adinako zenbatekoan.

XI.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Gaitasun juridikoa nahiz jarduteko gaitasun betea duten pertsona natural edo juridikoek kontratatu ahal izango dute, baldin eta kaudimen ekonomiko eta profesionala badute, eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategineko 20. artikuluan aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasun kausetan sarturik ez badaude.

Horretarako eratutako aldi baterako Enpresa Elkarteak kontratatu ahal izango ditu Udalak (esleipena egin arte ez da beharrezkoa izango elkarte horiek Eskritura Publiko bidez formalizatzea). Aipatutako elkarteek administrazioaren

aurrean solidarioki erantzungo dute eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatuko dute.

XII.- LANGILERIA. SUBROGAZIOA

Enpresa esleipendunaren kontura lan egiten duten langile guztiak behar bezala aseguratutik eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar dira. Beraien lan-baldintzak eta enpresarekiko harremanak indarrean dagoen lan-legeriarekin bat etorri behar dira, bereziki Langileen Estatutuarekin eta indarrean dauden gainerako xedapenekin eta horiekin bateragarriak direnekin.

Lizartzako Udalak ez du inolako lan-harremanik izango enpresak esleipendunak dendako zerbitzura edota Lizartzako Udalak dituen instalazioen batera bidalitako langileekin. Hortaz, kontratua amaitutakoan enpresa esleipenduna bere langile guztiez arduratu beharko da. Eta ez da inolaz ere ez gauzatuko enpresa esleipenduneko langileen enpresa-ondorengotzarik Lizartzako Udalera. Aipatutako enpresa-ondorengotza Langile Estatutuaren 44. artikuluan araututakoa da.

XII.- KONTRATUA AMAITUTZAT JOTZEKO ARRAZIOIAK

Kontratuari amaiera emateko, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Toki Korporazioen Zerbitzuetako araudian emandako arrazoiak hartuko dira kontuan, eta bai ezar daitekeen beste edozein arau ere.

Horrez gain, kontratua amaitutzat jotzeko arrazoiak izango dira:

- a) Ustiapena uztea, hots, egutegiko 30 egun baino gehiagoz zerbitzua emateari uztea.
- b) Jarduera garatzen deneko instalazioak eta bulegoak beste helburu batzuetarako erabiltzea Lizartzako Udalaren baimenik jaso gabe.
- c) Udalak eskatutakoa eta agindutakoa behin eta berriz ez betetzea.

- d) Udalaren jabetzei loturik dauden ondasun higikor eta higiezinaren emakida edo titularitatea uztea, transferitzea edo berritzea, Udalaren baimenik jaso gabe.
- e) Instalazioak kontserbatzerakoan edo zerbitzua ematerakoan utzikieriaz aritzea edo zerbitzuari buruz udal agintariek emandako jarraibideak ez betetzea.

XIII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEK AGIRIA ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO DEIAREN IRAGARKIA ALDI BEREAN JENDAURRERATZEA

Apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Lege Dekretuaren 122. artikuluko 2. paragrafoak dioenaren arabera, Administrazio Baldintza Berezien Agiria, Baldintza Teknikoen Agiria eta eskaintzak aurkezteko deiaren iragarkia batera kaleratuko dira. Baldintza-agiriaren kontrako erreklamaziorik egin nahi izanez gero, iragarkia argitaratu eta hurrengo 8 lanegunetan aurkez daitezke.

Epe horren barruan erreklamazioen bat egingo balitz, esleipena bera eta proposamenak aurkezteko epea gerarazi egingo lirake. Horren ondorioz, erreklamazioen ebazpena eman eta hurrengo egunetik hasiko litzakete geratzen den denbora zenbatzen.

XIV.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA: PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA, FORMALITATEAK ETA DOKUMENTUAK.

1.- Parte hartzeko eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

Proposamenak Udaletxe honetako Idazkaritzan aurkeztuko dira bulego-orduetan, 8:00etatik 14:00etara, eta horretarako hamabost eguneko epea emango da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Egun hori jaieguna izango balitz, epea egun horren hurrengo lanegunean amaituko litzateke.

Postaz ere bidal daitezke proposamenak. Horrela egiten bada, lehiatzaileak Postetxeko bulegoan jarritako bidalketa-data justifikatu beharko du eta kontratazio organoari egun berean telex, telegrama edo faxen bidez jakinarazi beharko dio eskaintza bidali diola. Arestian aipatu baldintzak betetzen ez dituen eskabiderik ez da onartuko, enkanteari buruzko iragarkian finkatutako epez kanpo jasotzen bada.

Dena den, proposamenak aurkezteko epea amaitzen denetik 5 egun igaro ondoren, ez da postaz bidalitako proposamenik onartuko.

2.- Formalitateak

Proposamenak bi gutunazal itxitan (A eta B) aurkeztuko dira eta horietako bakoitzean edukia adieraziko den moduan eta lehiatzailearen izena jasoko dira.

A) A GUTUNAZALA:

Proposamena izenekoa, azken baldintzan adierazitako ereduaren arabera izango da eta gutunazal itxian aurkeztuko da. Interesdunak eskatuta lakraturik eta prezintaturik ere egon daiteke. Gutunazalak izenburu hau eramango du: **“Lizartzan supermerkatu baten eta lokalaren ekipamenduaren ustiapenaren kudeaketa esleitzeko lehiaketarako proposamena”**

1.- Proposamen ekonomikoa.

2.- Alderdi hauei buruzko MEMORIA:

.- Lehiaketaren xede den arloan lehiatzaileak daukan eskarmentua, curriculum-dokumentuekin batera, esparru horretan izandako eskarmentua eta azken urteotan egindako jarduerak frogatzen dituztenak, baita lehiatzaileak egokitzat jotako beste batzuk ere.

.- Lehiatzaileak zentroan gauzatu nahi duen ustiapen-proiektuaren ideia orokorrak.

.- Euskararen jakite-maila, ahoz eta idatziz.

Lehiatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Memoriarekin batera, bertan jasotako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira.

B) B GUTUNAZALA:

Dokumentuak izenekoa. Izenburu hau eramango du: **“Lizartzan supermerkatu baten eta lokalaren ekipamenduaren ustiapenaren kudeaketa esleitzeko lehiaketarako dokumentu orokorrak”**.

Agiri hauek izan beharko ditu:

1.- Lehiatzailearen nortasuna eta, hala badagokio, eskabidea sinatzen duenak zeinen ordezt sinatzen duen frogatzen duen agiria edo agiriak:

1.1.- Pertsona fisikoak edo banako enpresariak direnean, lehiatzailearen Nortasun Agiri Nazionala. Enpresaria pertsona juridikoa denean, berriz, ordezkariak publiko administratiboa duenaren fotokopia konpultsatua, edo Merkataritzako Sozietatearen Eraketa Eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik egon behar dena.

1.2.- Ordezkari gisa jarduten badu, ahalordea.

1.3.- Baldin eta hainbat enpresaburu Aldi Baterako Enpresa Elkartean bilduta aurkeztzen badira lehiaketara, haietako bakoitzak egiaztatu beharko du bere nortasuna eta baduela jarduteko gaitasuna. Horrez gain, datu hauek adierazi beharko dituzte: proposamenak sinatzen dituzten enpresaburuaren izenak eta ezaugarriak, bakoitzak elkartean zer parte-

hartze duen, eta Udalarekiko harremanetan elkartea ordezkatzeko duen ordezkari edo ahaldunaren izendapena .

- 2.- Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 20. artikuluan ezartzen diren kontratatze debekuetan barne hartuta ez izatearen ziurtagiria.
- 3.- Zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egitekoak beteta dituela frogatzen duen agiria, martxoaren 1eko 390/96 Errege Dekretuak ezarritako moduan. Horrekin zerikusia dute arau beraren 7. eta 8. artikuluek.
- 4.- Atzerriko enpresei dagokienez, Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikziopean jarriko delako adierazpena.

XV.- KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honela eratuta edo osatuta egongo da:

- .- Mahaiburua, Udalbatzaren burua bera izango dena edo hark eskuordetutako kide bat.
- .- Udal arkitektoa.
- .- Idazkaria, egintzaren fede emango duena.

XVI.- DOKUMENTAZIO OROKORRAREN KALIFIKAZIOA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean, Kontratazio Mahaiak dokumentazio orokorra (lehiatzaileek B gutunazalean aurkeztutakoa) kalifikatzeari ekingo dio, ekitaldi pribatuan.

Formazko akatsik egonez gero, gehienez ere hiru eguneko epea eman ahal izango du, egoki baderitzo, lehiatzaileak hutsa konpon dezan.

Dokumentazioak funtsezko akatsak edo konpondu ezinezko hutsuneak izango balitu, proposamena baztertu egingo da.

XVII.- KONTRATUA ESLEITZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek dira:

- .- Bermatuko dituen inbertsioak, kontratatuta amaitutakoan Udalaren esku geratuko direnak: % 40.
- .- Kanon gisa eskainitako goranzko kopurua: % 30.
- .- Antzeko lanetan izandako eskarmentua: % 25.
- .- Herriko langileak kontratatuzeko konpromisoa, horien kontratazioa beharrezkoa bada: % 5.

Lizartzako Udalbatzak lehiaketa esleitzeke utz dezake aurkeztutako eskaintzetako bakar batek ere eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu.

XVIII.- PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean egingo den jendaurreko ekitaldian, goizeko bederatzietan eta Udaletxeko Bilkura Aretoan, Kontratazio Mahaiak dokumentazio orokorraren kalifikazioaren berri emango du. Aipatutako dokumentazioa lehiatzaileek B gutunazalean aurkeztutakoa da. Halaber, baztertuak izan diren lizitatzailen berri emango du, baztertuak izateko arrazoiak adieraziz. Ondoren bertaratuei oharrak egin nahi duten galdetuko die eta egiten diren oharrak aktan jasoko dira.

Jarraian, Mahaiaren idazkariak A gutunazalak zabalduko ditu eta bertan adierazitako proposamen ekonomikoak eta aurkeztutako memoriak irakurriko ditu. Ondoren, aktarekin eta egokitzen jotzen duen proposamenarekin batera, esleipena egingo duen Kontratazio Organoari igorriko dizkio.

Proposamena egin ostean, bertaratu diren lehiatzaileek ekitaldiaren aurka egoki deritzoten erreklamazioak edo oharrak egiteko gonbita luzatuko die

mahaiak eta gertatzen den guztia aktan jasoko da (gutxienez mahaiburuak eta Mahaiaren idazkariak eta erreklamazioak edo oharrak egin dituztenek sinatuko dutenak).

XIX.- BEHIN BETIKO ESLEIPENA

Kontratazio Mahaiaren dokumentazioa jaso ondoren, Kontratazio Organoak eskaintzarik onuragarrienari esleitzen diezaioke kontratua, ez duelarik nahitaez aintzat hartu behariko kontratu horren balio ekonomikoa. Dena dela, esleitu gabe ere utz dezake.

Behin betiko esleipena erabakitzen denean enkantean parte hartu dutenei berau jakinaraziko zaie.

Kontratuaren esleipendunari jakinarazpena egiterakoan, behin betiko bermea jar dezan eskatuko zaio, VII. Baldintzan adierazitako modu eta zenbatekoan, eta ondorengo baldintzan aipatutako dokumentuak aurkezteko eskatuko zaio.

XX.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTU OSAGARRIAK

10 eguneko epean, esleipendun proposatuak dokumentu hauek aurkeztu behariko ditu, jatorrizkoen edo kopia konpultsatuen bidez.

Identifikazio Fiskalerako Zenbakia.

.- Ekitaldian eta zerga-helbidean Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

.- Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentua eta beronekiko betebeharrak guztiak egunekoan dituela frogatzen duen ziurtagiria,

Hori guztia, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/01 Errege Dekretuko 13. artikulutik 16. erainokoetan xedatutakoari jarraiki.

XXI.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo 15 hamar egunetan, administrazioak eta kontratistak kontratua formalizatu beharko dute. Gero kontratu hori Eskritura Publikoan jaso daiteke, kontratistak hala eskatuta eta beraren kontura.

Kontratuaz gain, kontratistak administrazio-baldintza berezien agiria sinatu beharko du, agiri hori kontratuan sartuta egongo ez balitz.

Kontratuaren esleipendunari jakinarazpena egiterakoan, behin betiko bermea jartzeko eskatuko zaio, Baldintza Agiri honetako V. Klausulan adierazitako moduan eta zenbatekoan.

XXII.- ESLEIPENDUNAREN KONTURA DIREN GASTUAK

Gastu hauek esleipendunaren kontura izango dira:

- a.- Lehiaketaren iragarkiak eta prestakuntzarakoak eta kontratua formalizatzeakoak.
- b.- Kontratutik eratorritako Estatuaren, udalaren eta eskualdearen zergak.
- c) BEZa ordaintzea.
- d) Hala badagokio, esleipen kontratuaren formalizazio publikoarenak.

XXIII.- ESLEIPENDUNAREN KONTURA DAUDEN INSTALAZIOAK

Hilabete bateko epean, esleipena jakinarazten denetik hasita, II. Klausulan aipatutako ekipamendua osatu beharko du emakidadunak.

XXIV.- ESLEIPENDUNARI INSTALAZIOAK ENTREGATZEA. ITZULKETA

Jarduera hasi aurretik, instalazioetan dauden altzarien eta tresnen zerrenda nagusia egiaztatu eta sinatutako da, bi aletan.

Emakidaren epea amaitzen denean, esleipendunari emandako instalazioak eta obrak Korporazioari itzuliko zaizkio, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Zerbitzuetako Araudiaren 131. artikuluan jasota dagoen moduan.

Higiezinak Lizartzako Udalaren jabegokoak izango dira beti eta instalazioak eta obrak – II. Klausulan jasotakoa alde batera utzita- haren baimenaz emakidunak egindakoak, haren jabetzara pasatuko dira zehaztutako denbora horretan. Epea amaitutakoan, horiek guztiak funtzionamendu eta kontserbazio egoera onean entregatu beharko ditu.

Itzulketa egiteko entregatutako ondasunak zamarik eta kargarik gabe egon behar dira eta Lizartzako Udala ez da inolaz ere subrogatuko emakidunaren eta horri atxikitako langileen artean izan daitezkeen lan-harremanei dagokienez.

Kontratuaren indarraldia bukatu baino bi hilabete lehenago Udalak udal teknikariei edo kanpo teknikariei txosten bat egiteko aginduko die. Txosten horretan instalazio, ekipamendu, ondasun eta obra guztien kontserbazio eta funtzionamendu egoera zein den adieraziko da, baita beharrezkotzat jotzen diren konponketa eta berritze lanak ere. Kontratua amaitu bada eta emakidunak egin ez baditu, Udalak egin ahal izango ditu, behin betiko fidantzaren kontura edo bere zenbatekoa fidantzatik kenduta.

XXV.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Baldintza Orri honetan adierazitako arrazoiez gain eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 112., 150. eta 168. artikuluetan aipatutakoez gain, kontratua suntsiarazi ahal izango da Baldintza Orrietan eta

emakidunaren eskaintzan finkatutako funtsezko edozein alderdi ez betetzeagatik eta zerbitzua arautzen duen Erregelamenduan aipatutako eta oso larria den arau-hausteren bat egiteagatik.

XXVI.- KONTRATUAREN AMAIERA

Edozein arrazoi dela medio, kontratua amaitzen bada, akta bat egingo da. Bertan emakidadunak Udalari higiezia, instalazioak, altzariak, tresnak eta abar zein egoeratan eta nola itzultzen dion adieraziko da eta zerrendaren aldean dauden desberdintasuna zehaztuko dira, hark dagozkion kalte-ordainak eman ditzan.

Lizartzako Udalaren Idazkaritzak eta emakidadunak izenpetuko dute aipatutako akta. Kontratua amaitzeko arrazoiak adieraziko dira, baita birjarri beharrekoaren zenbatekoa ere. Birjarri beharrekoa ordaintzeko HAMABOST (15) eguneko epea izango du, akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita. Hala egin ezean, behin betiko fidantzatik kenduko zaio.

Azken akta egiteko Udalak zehaztutako egunean emakidaduna azaltzen ez bada, baliozkotzat emango da Udalaren Idazkaritzak idatzitako dokumentua eta eskatu ahal izango da. Azken akta egiteko Udalak zehaztutako egunean emakidaduna azaltzen ez bada, baliozkoa eta exijigarria izango da Udalaren Idazkaritzak idatzitako dokumentua.

XXVII.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Administrazio-baldintzen agirian aurreikusi ez denerako, honako hauek ezarri ahal izango dira: apirilaren 2ko 7/85 Legea, apirilaren 18ko 781/87 Legegintzako Errege Dekretua, Udalbatzetako Zerbitzuetako araudia eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Testu Bategina.

XXVIII.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratuan hitzartutakoa interpretatzerakoan, betetzerakoan edo burutzerakoan sortutako gorabehera guztietarako, EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Aretoak ebatzitakoa onartuko dute. Hortaz, kontratua izenpetzen duten aldeak horren menpe jartzen dira.

XXIX.- PROPOSAMEN EREDUA

.....jaunak/andreak, bere bizilekuaen duenak, udalerrria: NAN zenbakiaduenak, bere izenean (edoen izenean diharduela, berauarekin egiaztatzen duela),zenbakikoko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren ... argitaratutako iragarkiaren eta Baldintza Ekonomiko Administrazioaren Agiriaren berri izan du. Aipatutakoek Lizartzan supermerkatu bat eta Lokalaren ekipamendua ustiatzeko emakidaren lehiaketa arautuko dute. Bertan parte hartuko du eta Baldintza Agirian adierazitako zerbitzuak emateko konpromisoa hartzen du, eta horretarako Lizartzako Udalari ordainduko dion urteroko kanona(jarri letra eta zenbakitan) eurokoa izango da (BEZik gabe).

Honekin batera aurkezten dira eskatutako dokumentuak eta esleipena emateko baldintza-orrian aintzat hartzen diren merituen ziurtagiriak.

Tokia, eguna eta sinadura

Baldintza Ekonomiko-Administrazioaren agiria, Lizartzan Supermerkatu bat zeharkako kudeaketa bidez, ustiatzeko eta lokalaren ekipamendua gauzatzeko emakidaren kontrataziorako lehiaketa arautzen dutenak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

3.- KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 2004ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 106.350,74 €-tako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoaren Kontuhartzailetza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

4.- 2004 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO - KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarritzko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 2003ko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko testua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela

aipaturiko textuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 2004ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

2004 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 2003ko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzailearen testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailetan, jasotako eta onartutako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 2004rako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzailean agertzen diren hobekuntza guztiak (2003ko testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.
4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzaileren zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 2004ko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 2004ko Urtarrilaren 1etik, 2004ko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 2005 urteko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1.590 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

2004ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: IPC – 2,6%, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzailerak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 0,24 Euro ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen asegurua mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sorlekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Debatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

2004 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Astelehenetik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

Lizartzan, 2004ko Urtarrilaren 1ean.

2004 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK

IGOERA: 3,2 %

NIBELA	2003 URTEAN	3,2%	GUZTIRA	BPFZO
30	3.672,32	117,52	3.789,84	254%
29	3.569,91	114,24	3.684,15	25%
28	3.467,47	110,96	3.578,43	24%
27	3.365,03	107,68	3.472,71	24%
26	3.262,59	104,41	3.367,00	23%
25	3.160,17	101,13	3.261,30	23%
24	3.053,54	97,72	3.151,26	23%
23	2.955,29	94,57	3.049,86	22%
22	2.852,90	91,30	2.944,20	21%
21	2.751,49	88,05	2.839,54	21%
20	2.648,05	84,74	2.732,79	20%
19	2.562,75	82,01	2.644,76	20%
18	2.443,18	78,19	2.521,37	19%
17	2.340,74	74,91	2.415,65	19%
16	2.238,32	71,63	2.309,95	18%
15	2.135,95	68,35	2.204,30	18%
14	2.033,46	65,07	2.098,53	17%
13	1.931,03	61,80	1.992,83	17%
12	1.842,12	58,95	1.901,07	16%
11	1.753,84	56,13	1.809,97	16%
10	1.664,35	53,26	1.717,61	15%
9	1.575,47	50,42	1.625,89	14%
8	1.492,77	47,77	1.540,54	14%
7	1.410,08	45,13	1.455,21	13%
6	1.328,57	42,52	1.371,09	13%

2004 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 3,2%

HIRURTEKOA	2003 URTEAN	3,2%	GUZTIRA
A	51,51	1,65	53,16
B	41,82	1,34	43,16
C	37,59	1,21	38,80
D	30,34	0,97	31,31
E	26,82	0,86	27,68

2004 urteko Langileen Hitzarmena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- 2005 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2004 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	75.985,98
2	Zeharkako Zergak	10.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	31.315,82
4	Transferentzi Arruntak	360.491,99
5	Ondare Sarrerak	2.000,00
7	Kapital Transferentziak	36.206,21
SARRERAK GUZTIRA		516.000,00

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Pertsonal Gastuak	156.858,85
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	152.118,22
3	Finantza Gastuak	10.102,76
4	Transferentzi Arruntak	72.554,86
6	Inbertsioak	112.807,39
9	Pasibo Finantzarioak	11.557,92
IRTEERAK GUZTIRA		516.000,00

2005 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

6.- 2005 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANGILEEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laborala finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

2005 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
Administratiboa * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
LAN PERTSONALI GORDETZAKO LANPOSTUAK	Lap.Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

2005 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	10.031,00	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	10.947,16	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diplomaduna	C	%36 Berez .	B	17	3.828,16	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	12.544,98	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu a edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	4.204,48	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	6.802,88	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO
LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%26,67 Berez.	E	6	Ez	2	91-02-06	Aktib.	BB

Izena	Soldata	Lan Lekuagatiko Osakina	Osakin Espezifikoa	Hirurtekoak	Besteak	Guztira
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	587,05	389,17	716,50	148,81	58,37 Agrupazioa	1.899,90
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	531,83	311,47	781,94	79,18		1.704,42
GIZARTE LAGUNTZAILEA	317,11	144,27	273,44	24,25	37,64%	759,07
LANETAKO OFIZIALA	531,82	359,37	896,07	63,24		1.850,50
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	220,01	118,93	300,32	6,54	41,37%	645,80
GARBITZAILEA	385,05	149,33	485,92	18,84	79,31%	1.081,88

2005 urterako Langileen Zerrenda eta Plantilla Organikoa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

7.- ALTXORTEGI-KREDITU BAT ITUNTZEA

Udalbatzak, gai honi buruz eztabaidatu ondoren, Batzarra zuzenbidez osatzen duten kideen beharrezko gehiengo nagusia osatzen duten, lau zinegotzien aldeko botoei esker, HAU ERABAKI DA:

1.- Gipuzkoa Donostia Kutzarekin, HIRUREHUN MILA (300.000,-) € diru-kopurukoa den kreditua kontratatzea, Entitate emailean eragiketa-mota honetarako ohizkoak diren interes, komisio eta amortizazio-epean amortizatzea:

ESKAINTZEN DEN KOPURUA	300.000,00 €
EPEA	Sinadura-datatik kontatzen hasita urtebete
AMORTIZAZIOA	Mugaegunean
INTERES-TASA	Aldakorra, hiruhileko EURIBOR-agehi 0,25 puntuko diferentziala. Oinarria 360 egun
INTERESEN LIKIDAZIOA	Hiru hilabetetik behin
ALDAKETAKO EPEALDIA	Hiruhilekoa
BIRIBILTZEAREN ERAGINIK HANDIENA	Ez dago biribiltetarik
IREKIERA-KOMISIOA	%0,10
ERABILTZEAGATIKO-KOMISIOA	%0,15
AURREZ KITATZEAGATIKO KOMISIOA	Komisorik gabe
BERMEA	Udal Finantzaketako Foru Fondona
NOTARITZA ARTEKARI GASTUAK	Gasturik gabe.

2.- Kreditu horrek altxortegiko defizit iragankor bati aurre egitea du helburu.

3.- Kontratutako kredituaren itzulketaren berme gisa, Aurrekontuetako diru-sarreraren printzipalaz eta nahiz izango diren ondasun eta eskubide guztien orokorraz eta subsidiarioaz gain, jarraian datozenok ematen dira:

“Aipatu kredituarengatik, honen interes, komisio, gastu eta zor lekiokoen ororengatik, Lizartzako Udalaren lehentasunezko hartzekodun izaerazera berezian lotzen eta kargatzen dira honako baliabideak sortu lituzketen diru-sarrerak:

Kontsultako Obrarako, Osasun Sailak luzatutako, 60.000 €-tako dirulaguntza.

Kultur Gunerako, Gipuzkoa Donostia Kutxak luzatutako, 30.000 €-tako dirulaguntza.

Kultur Gunerako, Erein Programatik luzatutako, 35.833,57 €-tako dirulaguntza.

Seaska Etxebizitzak-ekin sinatutako, Hirigintza Hitzarmena bidez, 53.175,60 €

Eskolako Jangela-Botikarako, Erein Programatik kobratzeko 26.937,39 €-tako dirulaguntza

Denda jartzeko, Tolosamenditik proposatutako, 36.206,21 €-tako dirulaguntza.

Itundutako bermearen eragimenerako, era atzeraezinezkoan ahalmena ematen zaio Gipuzkoa Donostia Kutxari, akordio hau kasuan kasuko Erakunde ordaintzailearen aurrean erakusteko betebeharrak bakarrarekin, aurreko paragrafoan zehaztutako baliabideetan esku hartzeagatik, Lizartzako Udalari zor lekizkiokeen kopuruak ordaindu ahal diezazkioten”.

- 4.- Era ezeztazinean, Gipuzkoa Donostia Kutxan helbideratzea Udal Finantzaketako Foru-Fondoan esku hartzetik eratorritako diru-sarrerak (Zerga Itunduak) edo, hala dagokionean, haiek ordezkari ditzakeena, Udalak, orain kontratatzen dena barne, formalizatuak dituen maileguen eta kredituen portzentaia berdinean edo handiagoan, zorpetzearen guztirakoari datako egunean dagokionez.

Aipatu helbideratzea, kontratatzea den eragiketarik nahiz indarrean diren gainerako mailegu eta kredituetatik eratorritako kutxarekiko finantza-erantzunbeharrak kitatu artean mantenduko da.

Altxortegi-Kreditu bat ituntzeko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- KONTSULTAKO OBREN AURREKONTUAREN GEHIKUNTZA

2004ko Apirilaren 20 eta Uztailaren 1ean, Osaun Zentruko Obren 1. eta 2. faseen adjudikazioa burutu zen, guztira, 137.469,81 €-tako kopuruan.

Ondoren, eta Udaleko Arkitekto Teknikariaren proposamenez, etxearen berrikuntza erabat amaituta uzten arren, teilatua altxa eta bi lokal berri ateratzea erabaki zen, guztizko aurrekontua, 223.539,97 €-tara igotzen zelarik.

Arkitektoaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartzea erabaki da, indarrean dagoen Aurrekontuko 622.411.01.01 partidaren kargura, 51.714,49 € eta 2005 urteko aurrekontuko 622.411.01.01 partidara, 65.555,01 €-tako gastua onartuaz.

9.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UDALAREN BERAREN ZUZENBIDE PUBLIKOKO DIRU SARRERAK BIDE EXEKUTIBOAN BILTZEKO

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2. artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ogasunerako legez ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Halaber, aipatu foru arauak 8. artikuluan dio Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.

Bestetik, apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduari buruzkoak, 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Fiskaliterako eta Finantzeterako Departamentuko zergabilketa organoek

beren gain hartu ahal izango dute beste herri administrazio batzuen diruen bilketaren kudeaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenen bitartez.

Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bileran erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen Udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmenaren eredu onartzea, hain zuzen, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesagarritzat jotzen duenez, Lizartzako Udalbatzak, Alkatezaren proposamenari jarraiki, gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKI DU:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetzaren hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren beraren zuzenbide publikoko diru sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura.
- 2.- Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Lizartzako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtzura eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, Alkate-Lehendakariak sinatuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Lizartzako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Udalaren beraren zuzenbide publikoko diru sarrerak bide exekutiboan biltzeko, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

10.- IZFE. UDALEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA

Izfe, S.A.rekin harremanak finkatzeko, Udaleko Ordezkarri bat izendatu beharra dago.

Hori dela eta, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea den, ANA JESUS ZABALA GARMENDIA izendatzea, aho batez onartu da.

11.- EUDEL-IBERDROLA HITZARMENA

Tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa Udalek kudeatzeko xedez, EUDELEk eta Iberdrola Distribución Eléctrica-k sinatu duten hitzarmenaren abantailez baliatzeko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, atxikimendua egitea, aho batez onartu da, horretarako, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSEBA EGIBAR ARTOLA ahalmenduaz, beharrezko diren hitzarmenak sinatu ahal izateko.

12.- HAURRESKOLAKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA

Haurreskoletako kide bakarreko eta taldeko organoen funtzioen jarraipena egin ahal izateko, Haurreskola bakoitzean, Jarraipen Batzordea eratuko da. Batzordea, besteak beste, herriko udalaren ordezkariak osatuko du, eta Udalak ordezkari izendatzen duen langileak.

Hori dela, Lizartzako Udalaren ordezkaria, JOSEBA EGIBAR ARTOLA izendatzea, aho batez erabaki da.

13.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

ILLARRATSU INGURUAN OBRARAKO MATERIALAK BILTZEN DIREN TOKIARI BURUZKOA

IKUSIRIK.- Udalaren zerbitzu teknikoek 2004ko azaroaren 17an emandako txostena, obrarako materialak biltzen diren toki biri buruzkoa;

Ilarratsu inguruan, landalurren katastroko 3. Poligonoko 23. lurzatian, errepidearen eta ibaiaren artean dago. Lurzatiaren jabea Gipuzkoako Foru Aldundia da.

JAKINIK.- Aipatutako guneak urbanizagarria ez den lurlean daudela eta nekazarita-ustiapenari loturiko erabilerak baino ez daudela baimenduta. Hortaz, ez dauka obrarako materiala biltzeko jarduera egiteko baimenik.

JAKINIK.- Gunea Araxes ibaia eta errepidea mugakide dituen, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sailaren baimena beharko lukela.

AINZAT HARTURIK.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 84. artikuluan ezarritakoarekin bat, herri-administrazioek emandako lizentzia edo baimenek ez dutela esan nahi titularrak libre daudela tokiko erakundeek lizentziak lortu behar izatetik. Horrenbestez, beste organo batzuen aldetik lor ditzaketen lizentziez gain, derrigorrezkoa da udalaren baimena edukitzea.

AINZAT HARTURIK.- Ibaiertzak antolatzeko Arloko Planak espresuki debekatzen duela edozein material biltzea uholdeak izanez gero oztopo izan daitekeen lekuetan, kasu honetan gertatzen den bezala, dauden material, etxola eta makinak onduz.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintza arloko arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari dagokionez arduradunak Gipuzkoako Foru Aldundia da, materiala bildu deneko lurzatiaren jabeak baita.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 20. artikuluan eta horrekin bat datozen artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 9ko

1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Lizartzako Udaleko Antolamendurako Ordezko Arauetan ezarritakoa.

Alkate-udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

- 1.- Urbanizatu ezin den lurrean materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari hasiera ematea. Nekazaritza-ustiapenari loturik dauden erabilerak baino ez daude baimenduta eta, hortaz, obrarako materialak bertan biltzea ez dago baimenduta..
- 2.- Hilabete bateko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, bildutako material guztia kentzeko. Hala egiten ez bada, dagokion zigor-espedienteak irekiko da.
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari, hamabost eguneko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten zaion egunetik zenbatuta, bere eskubideak defendatzeko alegazio eta agiriak aurkez ditzan, egokitzen joz gero.
- 4.- Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketa eta Ingurumen Saileko Uren Zerbitzuari jakinaraztea.”

CARROCERIAS DEL ARAXES INGURUAN DAGOEN MATERIALAK BILTZEN DIREN TOKIARI BURUZKOA

IKUSIRIK.- Udalaren zerbitzu teknikoek 2004ko azaroaren 17an emandako txostena, obrarako materialak biltzen diren toki biri buruzkoa; bata Carrocerías Araxes-en inguruan dago 1. Poligonoa 497 lurzatia,

errepidearen eta ibaiaren artean dago. Lurzatiaren jabea Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta Jauna da.

JAKINIK.- Aipatutako gunea urbanizagarria ez den lurtean dago eta nekazarita-ustiapenari loturiko erabilerak baino ez daudela baimenduta. Hortaz, ez dauka obrarako materiala biltzeko jarduera egiteko baimenik.

JAKINIK.- Gunea Araxes ibaia eta errepidea mugakide dituen, Eusko Jaurlaritzaren Uren Zerbitzuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Errepide Sailaren baimena beharko luke.

AINZAT HARTURIK.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 84. artikuluan ezarritakoarekin bat, herri-administrazioek emandako lizentzia edo baimenek ez dutela esan nahi titularrak libre daudela tokiko erakundeek lizentziak lortu behar izateak. Horrenbestez, beste organo batzuen aldetik lor ditzaketen lizentziez gain, derrigorrezkoa da udalaren baimena edukitzea.

AINZAT HARTURIK.- Ibaiertzak antolatzearen Arloko Planak espresuki debekatzen duela edozein material biltzea uholdeak izanez gero oztopo izan daitekeen lekuetan, kasu honetan gertatzen den bezala, dauden material, etxola eta makinak ondorioz.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintza arloko arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari dagokionez arduraduna Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta jauna da, materiala bildu deneko lurzatiaren jabea baita.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeko 20. artikuluan eta horrekin bat

datozen artikuluetan xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Erregimenari eta Hiri Antolaketari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINTZAT HARTURIK.- Lizartzako Udaleko Antolamendurako Ordezko Arauetan ezarritakoa.

Alkate-udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

- 1.- Urbanizatu ezin den lurrian materiala biltzearen ondorioz hautsitako ordena urbanistikoa berrezartzeko espedienteari hasiera ematea. Nekazaritza-ustiapenari loturik dauden erabilerak baino ez daude baimenduta eta, hortaz, obrarako materialak bertan biltzea ez dago baimenduta..
- 2.- Hilabete bateko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, bildutako material guztia kentzeko. Hala egiten ez bada, dagokion zigor-espedienteak irekiko da.
- 3.- Jose Manuel Agirrebarrena Ruiz de la Cuesta Jaunari hamabost eguneko epea ematea, ebazpen hau jakinarazten zaion egunetik zenbatuta, bere eskubideak defendatzeko alegazio eta agiriak aurkez ditzan, egokitzen joz gero.
- 4.- Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garraio eta Errepide Sailari eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolaketari eta Ingurumen Saileko Uren Zerbitzuari jakinaraztea.

A-4 ZUBI BERRIAREN EGOKITZAPENA – OBRETAKO 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Uztailaren 1eko Udalbatzarraren bidez, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Uztailaren 5ean,, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen 2. ziurtagiria, EHUN ETA HAMALAU MILA BOSTEHUN Euro HIRUROGEITA ZORTZII Zentimo (114.500,68) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.02.01 patidaren kargura, 114.500,68 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

JUAN JOSE MATEOS MORALES – OBREN ETENDURA

Udaleko Ikuskaritzak eginiko salaketa dela eta, honako ERABAKI hau hartu du:

JUAN JOSE MATEOS MORALES Jaunak, Elbarrena Kalea, 16an, ARRATE BASERRIAN, eta baimenik gabe, eginiko obrei buruz, Udaleko Zerbitzu Teknikoek eta egindako txostenak ikusi ondoren.

Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua Ikusi ondoren eta baita ekainaren 23ko 2187/78 Errege-Dekretuz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamenduko 29. artikulua ere, eta aipatu Hirigintza-Disziplinaren Erregelamenduko 1. artikuluko zenbakian tipifikatuak eta Lizartzako Arau

Subsidiarioetan oinarritutako eraikuntza obrak baimenik gabe egin eta egiten ari dela ENTZUN ONDOREN,

HONAKO HAU ERABAKI DU:

- 1.- Juan Jose Mateos Morales Jauna, Elbarrena Kalea, 16ko, ARRATE BASERRIAN, eta Udal baimenik gabe egiten ari den lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- 15 eguneko epea ematea, Juan Jose Mateos Morales Jaunari, ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurrikusten dituen frogen proposamena egiteko. Epea pasatakoan, Udalak dagokion zigor espedienteari hasiera emango dio, akordio honetan gertutako ekintzengatik.
- 3.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeko udalaren aurrean.
- 4.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaietako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

ORKAIZTEGI – ARAU HAUSTEAGATIK ZIGOR ESPEDIENTEA

IKUSIRIK.- 2004ko Uztailaren 7an Udalaren Arkitekto Aholkulariak emandako txostena, Lizartzako Apeztegia Etxea (Ospitale ere esaten zaiona) zaharberritzeko lanei buruzko.

JAKINIK.- Lizartzako Apeztegia Etxea besterentzeko prozedura eman gabe geratu ondoren, 2002 eta 2003 urteetan eginiko enkanteen bidez,

Orkaiztegi S.L. enpresak berau eskuratzeko eskaintza aurkeztu ziola Lizartzako Udalari.

JAKINIK.- Ospitale Etxea, edo Apeztegia, Lizartzako Balizko Arkeologia Guneen barruan mugatuta dagoela, Eusko Jaurlaritzaren Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak 1997ko abenduaren 19an emandako ebazpenari jarraiki.

JAKINIK.- Eraikina egoera txarrean egon arren, eraikina bera eta batez ere beheko solairuko arkuak eta harria eta goiko solairuko egurrezko egitura interesgarriak direla, Gipuzkoako Historiaren eta Artearen Katalogoaren arabera. Hortaz, historiaren eta artearen aldetik daukaten balioa kontuan izanda, horiek kontserbatzeko premia ikusi zuen Udalak. Halaber, erosleei adierazi zitzairen etxearen aurrealdean zegoen gehigarria kendu beharra zegoela.

JAKINIK.- Udalean Oinarrizko Proiektua aurkeztu ondoren, eta geroago Egikaritzapen Proiektua, obrak egiteko baimena eman zitzaiola 2004ko Maiatzean. Horretarako baldintza bat ezarri zitzaion: obra hasi baino lehen zuinketa-akta egin zezala, eta Obrak, aurkeztu eta onartutako ejekuzio proiektuaren arabera burutuko zirela, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko zela, eta inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko zuela.

JAKINIK.- Euskal Kultur Ondareari buruzko, 7/1990 Legearen 49. artikulua ezartzen duenaren arabera, aipatu lekutan egin nahi diren lanen jabe edo sustatzaileak, orubea edo eraikuntzaren balio arkeologikoaren balia eta obrako proiektuan eduki lezazken ondorioen eraginari buruzko ikerketa aurkeztu beharko du, Urriaren 8ko 234/1986 Dekretuaren 7. eta konkordatu artikulua ezartzen duten eran.

JAKINIK.- Zuinketa-akta egin gabe, eta derrigorrezko arkeologiko ikerketa aurkeztu gabe, Udalaren arkitektoa konturatu zen lanak hasita zituztela. Eraikin barrua ikuskatzera joan zenean, ikusi zuen aurrekaldeko fatxada osorik bota zutela eta eraikinaren barnealdea hustu egin zutela erabat. Horrez gain, zementua eta hormigoia botatzeko lanak ia bukatuta zeuden. Hortaz, lanak geldiarazteko ahoz esan zitzairen, eta bai eraikitzailea bai arkitekto arduraduna udalaren bulegoetan agertu behar zirela adierazi zitzairen.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintza arloan indarrean dauden arauekin bat, nahasitako ordena urbanistikoa berriro ezartzeko espedienteari dagokionez arduraduna Orkaiztegi S.L. enpresa dela, obren sustatzaile izaki, eta baita Kele Lasa Arkitektoa ere, obren zuzendari izaki.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legean xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Disziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINZAT HARTURIK.- Apirilaren 9ko 1346/1976 Legegintzako Errege Dekretuko 184. artikuluan eta horrekin bateragarriak direnetan ezarritakoa, hain zuzen ere, Lurzoruaren Legeari eta Hiriaren Antolamenduari buruzko Testu Bateratua onetsi zuena.

AINZAT HARTURIK. Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta ezartzeko Hirigintza Disziplinako Araudiaren 1. eta 76. artikuluetan, hurrengoetan eta bereziki 86. artikuluan ezarritakoa.

Aipatutako Araudia ekainaren 23ko 2178/78 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa da.

AINZAT HARTURIK.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen arazoaren 26ko 30/92 Legearen 68 artikuluan eta ondorengoetan, eta 96.enean eta ondorengoetan xedatutakoa.

Guzti hori kontutan hartuta, ERABAKI DU:

- 1.- Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espedientea irekitzea eta arau-hauste horren arduraduntzat jotzea Orkaiztegi S.L. enpresa eta Kele Lasa zuzendari teknikoa.
- 2.- Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea Ana Jesus Zabala Garmendia, Udalaren Idazkaria.

Aditzera ematea espedientea ebazteko eskumena duen organoa udalaren alkate jauna dela, lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

- 3.- Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoa jakinaraztea Orkaiztegi S.L. enpresaren ordezkariari eta Kele Lasa Arkitektoari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea izango dutela, ebazpen hau jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasita, beraiek nahi dituzten alegazioak, dokumentuak eta beste edozein informazio aurkezteko, bai eta, hala badagokio, baliatu nahi dituzten bitartekoak zehaztu eta frogak proposatzeko ere.

- 4.- Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura Departamentuei ebazpenen honen jakinerazpena egitea, dagokien efektuetarako.
- 5.- Erabaki hauen aurka, ezin da errekurtsorik jarri, izapide hutsezko egintza baitira, interesdunek beren eskubideak defendatzeko bidezkoztat jotzen dituzten ekintzak egitearen kaltetan izan barik.

INAZIO ALTUNA AZURMENDI JAUNAREN ESKAERA

IKUSIRIK.- Inazio Altuna Azurmendi, 2004ko urriaren 22an, udalean aurkeztutako eskaera.

JAKINIK.- Idatzi horretan esaten den arabera, Lizartzako herrian Araxes ibai gainean egindako zubi berriarekin Errekalde etxea kaltetua izan dela, etxea erabat zokoratuta, geratu bait da eta ondorioz bere izaera ez du berreskuratuko, eta gutxieneko eta ahal den neurrian kalteak txikiagotzeko asmoz, eskakizun hauek egiten ditu:

- 1.- Petrilaren lerrokadura aldatzea, bera zabalduz eta ondorioz etxe aurrea handituz, krokisean adierazten den bezala.
- 2.- Ibaira doan eskailera kentzea eta bera beharrezkoa balitz honen kokapena ondo aztertzea Errekalde etzeari ahalik eta kalte gutxien sortuz.
- 3.- Etxearen inguru guztia urbanizatzea.
- 4.- Errekalde etxearen eta zubiaren igotzeko ranparen artean geratzen den lursaila jabego pribatua izatea (Errekalde Etxearena).

AINZAT HARTURIK.- Lehenengo hiru eskakizunei erantzuteko, udal zerbitzu teknikoen iritzia jaso beharko dela.

AINZAT HARTURIK.- Errekalde etxearen eta zubiaren igotzeko ranparen artean geratzen den lursaila Errekalde Etxearen jabeko

pribatua izateari buruzko eskakizuna, ezin dela inondik inora onartu, lursail hori jabari publikoa baita, eta udalak ezin du bere ondasunen lagapenik egin, herri interesean motibaturiko arrazoi batean oinarritutako prozedura administratibo baten ondorioz ez bada, eta kasu honetan ez da antzematen horrelako arrazoirik.

AINZAT HARTURIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22,1 k) artikuluan jasotakoa.

HAU ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Lehenengo hiru eskariak, onartzea.

Bigarrena: Errekalde etxearen eta zubiaren igotzeko ranparen artean geratzen den lursaila Errekalde Etxearen jabeko pribatua izateari buruzko eskakizuna, erabat ukatzea, lursail hori jabari publikoa baita. Era berean, jakinaraztea, tarte horretan ez dela inolako ixturarik onartuko.

Hirugarrena: Agindu hau interesdunari jakinaraztea eta berari aditzera ematea beronen aurka berraztertzeke errekurtsua jar daitekeela jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua Donostiako Administrazio-azietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean.

SEASKA ETXEBIZITZAK - LEHEN ERABILERA KO BAIMENA

SEASKA ETXEBIZITZAK S.L., URONDOA KALEAN kokatzen den, 2003ko Maiatzaren 20an, Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako 14 eta 12 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Era berean gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, **hilabete (1)** izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako **bi hilabete (2)** izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

MANIPULADOS DEL ARAXES

IKUSIRIK.- 2004ko irailaren 30eko Alkatetzaren Dekretua; horren bidez Hugar enpresari Manipulados del Araxes handitzeko lanak geldiarazteko agindua eman zion, derrigorrezkoa den udal lizentzia ez zeukalako. Aipatutako lanak legeztatzekeo hilabete bateko epea eman zitzaion.

JAKINIK.- Aipatutako Dekretuaren bidez 15 eguneko epea eman zitzaiola egokitze jotzen zituen alegazioak egiteko eta aditzera eman zitzaiola epe hori igaro ondoren Udalak dagokion zigor-espedita irekiko zuela.

JAKINIK.- Epea igaro dela, ez dela alegaziorik aurkeztu eta lanak egiten jarraitu dela.

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintzako arauen arabera, nahasitako ordena urbanistikoa berriro ezartzeko espedienteari dagokionez arduradunak, MANIPULADOS DEL ARAXES, CONSTRUCCIONES HUGAR enpresak direla, lanen sustatzaile izaki, eta baita Jorge Lizarribar Sans, Ingeniru Industrial, lanen zuzendari izaki.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren araubide eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legean xedatutakoa, apirilaren 9ko 1346/76 Errege Dekretuko 178. eta 184. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa (Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen Testu Bateratua onesten duena) eta 2187/1978 Errege Dekretu bidez onetsitako Hirigintzako Diziplinari buruzko Araudian ezarritakoa.

AINZAT HARTURIK.- Apirilaren 9ko 1346/1976 Legegintzako Errege Dekretuko 184. artikuluan eta horrekin bateragarriak direnetan ezarritakoa, hain zuzen ere, Lurzoruaren Legeari eta Hiriaren Antolamenduari buruzko Testu Bateratua onetsi zuena.

AINZAT HARTURIK.- Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatu eta ezartzeko Hirigintza Diziplinako Araudiaren 1. eta 76. artikuluetan, hurrengoetan eta bereziki 90. artikuluan ezarritakoa. Aipatutako Araudia ekainaren 23ko 2178/78 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa da.

AINZAT HARTURIK.- Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa.

AINZAT HARTURIK.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 68. artikuluan eta ondorengoetan, eta 96.enean eta ondorengoetan xedatutakoa.

Alkate-udalburu honek, **HAU ERABAKI DU:**

Lehenik: Hirigintza arloan egindako arau-haustearen ondorioz zigor-espedientea irekitzea eta arau-hauste horren arduraduntzat jotzea, **MANIPULADOS DEL ARAXES, CONSTRUCCIONES HUGAR** enpresa eta zuzendari teknikoa.

Horiei aditzera ematea Hirigintzako Diziplinaren Araudiko 90. artikuluan jasota dagoen zigorra ezar dakiekeela, hori guztia prozeduraren instrukziotik etor litekeenari kalterik egin gabe.

Bigarrenik: Zigor prozeduran instrukzio-egile izendatzea Ana Jesus Zabala Garmendia andrea, udalaren idazkaria.

Aditzera ematea espedientea ebazteko eskumena duen organoa udalaren alkate jauna dela, lurzoruaren araubideari eta hiri-antolamenduari buruzko premiazko neurrien martxoaren 6ko 5/1998 Legeko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Hirugarrenik: Ebazpen hau eta horren oinarritzat erabiltzen den txosten teknikoa jakinaraztea, **MANIPULADOS DEL ARAXES, CONSTRUCCIONES HUGAR** enpresaren ordezkari eta Jorge Lizaribar Sans jaunari. Halaber, aditzera ematea 15 egun balioduneko epea, ebazpen hau jakinarazten zaien egunetik zenbatzen hasita, izango dutela beraiek nahi dituzten alegazioak, dokumentuak eta beste edozein informazio aurkezteko, bai eta, hala badagokio, baliatu nahi dituzten bitartekoak zehaztu eta frogak proposatzeko ere.

Laugarrenik: Erabaki hauen aurka, ezin da errekurtsorik jarri, izapide hutsezko egintza baitira, interesdunek beren eskubideak defendatzeko bidezkotzat jotzen dituzten ekintzak egitearen kaltetan izan barik.

GASPAR BARRIOLA IRAZUSTA – SEGREGAZIO BAIMENA

IKUSIRIK.- Azaroaren 16an “INMOBILIARIA BEST-HOUSE”k Gaspar BARRIOLA IRAZUSTA jaunaren izenean Udal honetan, Bereizketa egiteko Lizentzia eskatzen aurkeztutako idazkia.

JAKINIK.- Eginiko eskabidean, Gaspar Barriola jaunak duen finkatik deskribapen hau duen lurzattia bereiztu nahi duela: “El Terreno herbal IRIBIETA, que contiene trece áreas diez centiareas y linda: Este, con terrenos de Uretagoyena y parcela segregada; Sur con camino; y Oeste, con la regata y parcela segregada.” Bereiztutako lur zatia, Jose Martín Belamendia Uria jaunari saldu nahi zaiola, ILARRAZU etxean egingo den nekazal turismoko Hotelarentzat, aparkaleku, lorategi eta baratza ekologiko erabilpenarako. Guztira 1.310 m²-ko azalera da banandu nahi duena, baina eskabidean ez da finka nagusian geratuko litzatekeen azalera zehazten.

JAKINIK.- 2004ko uztailaren 19an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean -136 zenbakian- Lizartzako Udalbatzak 2004ko uztailaren 1ean hartutiko erabakia argitara eman zen. Aipatu erabakiaren bidez jendaurrean jarri da Lizartzako Udala Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Aurrerapen agiria eta, ondorioz, Planeamendu berriaren eraginpeko eremuan lursailak partzelatzeko, bertan eraikitzeko edo eraikuntzak eraisteko lizentzien emakida eten da.

AINZAT HARTURIK.- Hirigintzako Plangintzaren Erregelamenduko (abuztuaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onetsia) 120. artikuluan jasotakoaren arabera, nahiz eta baimen emakida etena egon, indarrean dagoen

araudiarekin bat, eta araudi berriaren determinazioak errespetatzen dituen lizentzia ematea posible da.

AINZAT HARTURIK.- Lizartzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Aurrerapen Dokumentuan, Lurzoru Hiritar Ezinaren Araudian lehendik dauden baserrietan Ostalaritza erabilera baimentzen dela.

AINZAT HARTURIK.- Euskal Autonomi Elkarteko lehenasunezko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuko 2.2 artikulua, Dekretu horretan aurrikusi gabeko kontzeptuak eta definizioak, aplikatzeko beharrezkoak direnean, aplikagarri diren Europako Erregelamenduetan xedatutakora, Nekazaritzako Ustiapenak Modernizatzeari buruzko 19/1995 Legea eta Nekazaritzako Ustiapenen Erregistroa sortu zuen 84/1993 Dekretura joko dela, aipatu hurrenkerari jarraituz, esaten duela.

AINZAT HARTURIK.- Nekazaritzako Ustiapenak Modernizatzeari buruzko 19/1995 Legeak, 24. artikuluan jasotakoaren arabera, landa - finka baten bereizketa edo banaketa, baliogarria izango da lur lantzeko unitate minimo bat, osatzeko egiten bada soilik, eta kasu honetan hori ez da gertatzen. Beraz horrelako bereizketak sortzen dituzten ekintza edo negozio juridikoak baliogabeak izango dira.

AINZAT HARTURIK.- Lege horren, 25. artikulua, hainbat salbuespen jartzen ditu, eta horien artean hurrengoa:

“b) Si la porción segregada se destina de modo efectivo, dentro del año siguiente a cualquier tipo de edificación o construcción permanente, a fines industriales o a otros de carácter no agrario, siempre que se haya obtenido la licencia prevista en la legislación urbanística y posteriormente se acredite la finalización de la edificación o construcción, en el plazo que se establezca en la correspondiente licencia, de conformidad con dicha legislación.

A los efectos del artículo 16 del Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, no se entenderá vulnerada la legislación agraria, cuando la transmisión de la propiedad, división o segregación tenga el destino previsto en este apartado.”

AINTZAT HARTURIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22,1 q) artikuluan jasotakoa.

HAU ERABAKI DUT:

Lehenengoa: “INMOBILIARIA BEST-HOUSE”k Gaspar BARRIOLA IRAZUSTA jaunaren izenean eskatutako bereizketa egiteko lizentzia ematea. Baimen hau, hurrengo baldintzak betetzeari lotuta gelditzen da:

1.- Baimen eskaera modu egokian egitera, eskabidean finka nagusian geratuko litzatekeen azalera zehaztu beharko delarik, eta bi lursailen deskribapen bat lagunduz.

2.- Bereiztutako lursaila, Ilarrazu etxea dagoen finkari lotu beharko zaio, eta Nekazaritzako Ustiapenak Modernizatzeari buruzko 19/1995 Legearen 25. b) artikulua dioena bete beharko dute eskatzaileek

Bigarrena: Agindu hau interesdunari jakinaraztea eta berari aditzera ematea beronen aurka berraztertze errekurtsoa jar daitekeela jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Donostiako Administrazio-azietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean.

LIZARTZAKO SENDAGILE ETXEA ERABERRITZEA – OBRETAKO 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Ekainaren 11an Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Ekainaren 23an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.aren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen 1. ziurtagiria (75.528,71) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.622.411.01.01.2003 partidaren kargura, 75.528,71 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

LIZARTZAKO SENDAGILE ETXEA ERABERRITZEA – OBRETAKO 2. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Ekainaren 11an Alkatetza erabakiaren bidez, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Ekainaren 23an, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako Sendagile Etxea Eraberritzeko Lanen 1. ziurtagiria (32.000,00) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 3.0000.622.411.01.01.2003 partidaren kargura, 32.000,00 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

AZTINBURU LURRAREN SEGREGAZIOA

JOSEBA EGIBAR ARTOLA Jaunak, NAN 15.939.549 C zenbakidunek, Lizartzako Udaletxearen izenean, 2004ko Azaroaren bostean eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen du, beren jabetzakoa den, AZTINBURU izeneko lurratik:

- 1.- “Hereditad denominada Astiñaco-eche-burua, en Lizartza, que linda: Norte, camino carretil; Sur y Este, con resto de finca matriz, y Oeste, con Minteguiaga, además por el Norte y por el Oeste, lo hace con parcela segregada y vendida al Ayuntamiento de Lizartza. Tiene dieciseis áreas ventiseis centiáreas y sesenta decímetros cuadrados, y concretamente de su parte sembradía doce áreas cuarenta y cuatro centiáres y sesenta decímetros cuadrados.”

144,30 m²-ko lurra segregatu eta Maria Reyes eta Xabier Urbizu Urdampilleta Jaun/Andrearekin permuta egin ahal izateko.

Lur horren deskripzio berria honela geldituko litzateke:

- 1.- “Heredad denominada Astiñaco-eche-burua, en Lizartza, que linda: Norte, camino carretil; Sur y Este, con terreno permutado con Maria Reyes y Xabier Urbizu Urdampilleta y camino público, y Oeste, con Minteguiaga, Tiene quince áreas quince centiáreas y setenta decímetros cuadrados.”

Maria Reyes eta Xabier Urbizu Urdampilleta Jaun/Andreei ematen zaien lurraren deskripzioa, hau izango da:

- 1.- “Aztinako-Etxe-Burua izeneko eta 144,30 m²-ko azalera duen lurra. Mugak: Ifarra eta Mendebaldetik: Maria Reyes eta Xabier Urbizu Urdampilleta Jaun/Andreen jabetzako lurrarekin; Hegoalde eta Ekialdettik: Herri Bidea.

Permutatzen den lur hau, Maria Reyes eta Xabier Urbizu Urdampilleta Jaun/Andereek eraiki duten etxebizitzari lotu beharko zaio.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzeko, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinararen Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

MARIA REYES eta XABIER URBIZU – SEGREGAZIO BAIMENA

MARIA REYES eta XABIER URBIZU URDAMPILLETA Jaun/Andereek, NAN 72445569 P eta NAN 44162916 H zenbakidunek, Lizartzako, Iribarren Baserrian helbideratuak, 2004ko Azaroaren bostean eskaria aurkeztu dute; horren bidez, aipatu eskatzaileek, hala balegokio, dagokion udal-baimena ematea eskatzen dute, beren jabetzakoa den, AZTINBURU izeneko lurratik:

- 1.- “La heredad llamada Aztinburu, en Lizartza, de veintinueve áreas y cincuenta centiáreas de sembradía, un área y setenta y seis centiáreas de herbal, que linda: por Este y Sur con pertenecidos de Aztiria; por Oeste: con los de Goikoeche-aundia y por Norte, con los de Astinbitarte.”

144,30 m²-ko lurra segregatu eta Lizartzako Udalarekin permuta egin ahal izateko.

Lur horren deskripzio berria honela geldituko litzateke:

- 1.- “La heredad llamada Aztinburu, en Lizartza, de veintiocho áreas cinco, setenta centiáreas de sembradía, un área y setenta y seis centiáreas de herbal, que linda: por Este y Sur con pertenecidos del Ayuntamiento de Lizartza; por Oeste: con los de Goikoeche-aundia y por Norte, con los de Astinbitarte.”

Udalari ematen zaion lurraren deskripzioa, hau izango da:

- 1.- Bidea eraikitze erabiliko den, 144,30 m²-ko azalera duen lurra. Mugak: Ifarratik: Etxera doan bidea; Hegoaldetik: Lizartzako Udala; Ekialdetik: Lizartzako Udala eta Mendebaldetik: Goikoetxeaundia eta Maria Reyes eta Xabier Urbizu Udampilleta Jaun/Anderearen jabetzakoa den AZTINBURU lurrarekin.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. Artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinaren Erregelamenduaren 1. Artikuluaren gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketak ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, banaketa eta bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

2004ko 3. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2004ko Urriaren 26an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2004ko 3. Hiruhilabeteari dagokion Uraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 253 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 4.548,36 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2004 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO URAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den

hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

2004ko 3. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ONARPENA

Joseba Egibar Artola, Lizartzako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2004ko Urriaren 26an, ondorengo EBAZPENA luzatu du:

EBAZPENA.- 2004ko 3. Hiruhilabeteari dagokion Zaborraren Zergaren errolda iadanik egina dago alta eta baja guztiak eguneratu ondoren. **Denetara 305 errezibo dira eta kobratu beharreko kopurua, 2.873,65 €**

Beraz, espediente osoa ikusirik eta kontutan izanik, bere aurrean ERABAKI DUT:

2004 URTEKO 3. HIRUHILABETEKO ZABORRAREN ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA

Ebazpen hau behin-betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, beronen aurka Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazio Liskarretako Salan, iragarki hau argitara ematen den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean, aldez aurretik udaletxeari adierazita legeak, Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoak, 110.3 artikuluan dioen bezela.

ANGEL SANTOS-LURDES LASA. LEHEN ERABILERA KO BAIMENA

Angel Santos Ezpeleta eta Lurdes Lasa Miranda Jaun/Andreak, Gurutz Bidea Kalea, 3an kokatzen den, 2002ko Abuztuaren 12an, Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako Torre Etxearen Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Era berean gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengoaren arabera. Horretarako, **hilabete (1)** izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako **bi hilabete (2)** izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

BARATZA BASERRIA

Aratz Mujika Barandiaran Jaunak, 2001eko Ekainaren 4an, Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako obra baimenaren arabera eraikitako Baratza Etxearen Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, ERABAKI DUT:

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Era berean gogorarazten dizut erabakia zure kontrakoa edo aldekoa izan, erabakiaren aurka jotzeko eskubidea daukazula. Erabaki horren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino lehen berraztertzeko errekurtsua ipini ahal duzu; beti ere, 30/1992 Legearen¹ 116. artikulua eta hurrengo arabera. Horretarako, hilabete (1) izango duzu, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa zuzen-zuzenean ipini ahal duzu, aurretik berraztertzeko errekurtsorik ipini gabe. Horretarako bi hilabete (2) izango dituzu, dekretu honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

A-4, SEKTOREKO HIRIGINTZA OBREN 3. ZIURTAGIRI ONARPENA

IKUSIRIK.- 2003ko Apirilaren 14ko Udalbatzan hartutako erabakiaren bidez, "A-4, Eremuaren Hirigintza-Lanen Egitasmo Orokorrak, behin betiko onarpena jaso zuen.

IKUSIRIK.- 2003ko Maiatzaren 14an, Lizartzako Udala eta Seaska Etxebizitzak, S.L.-ren artean sinatutako Hirigintza Hitzarmenaren arabera, Entitate horren, A-4ko urbanizazio lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

KONTUTAN HARTUAZ.- SEASKA ETXEBIZITZAK S.L.k, Lizartzako A-4 eremuan egindako hiritartze lanen 3. obra ziurtagiria aurkeztu dutela, HOGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI euro HIRUROGEITA HAMABI zentimo (35.692,72 €); kopuru honetatik, Lizartzako Udalari, HAMASEI

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea.

MILA HIRUREHUN ETA ZORTZI euro (16.308,00 €) ordaintzea dagokiola.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- SEASKA ETXEBIZITZAK S.L.k aurkeztutako, A-4ko Eremuan, Hiritartze lanen 2. ziurtagiria (35.692,72) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.03.01 partidaren kargura, 16.308,00 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

A-4 ZUBI BERRIAREN EGOKITZAPENA – 1. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA

IKUSIRIK.- 2004ko Uztailaren 1eko Udalbatzarraren bidez, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen kontratazio, behin betiko esleitu zituela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Uztailaren 5ean,, Lizartzako Udala eta Construcciones Francisco Aierbe, S.L.ren artean sinatutako Administrazio Kontratuaren arabera, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanak gauzatzeko konpromezua hartu zuen.

Guzti hori kontutan hartuaz, zera ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Francisco Aierbe S.L,k aurkeztu eta Udaleko Arkitektoa den, Pilar Azurmendi Etxegaraik onetsitako, Lizartzako A-4 Zubi Berriaren Egokitzapen Lanen 1. ziurtagiria, BERROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA LAUROGEITA BOST Euro HOGEITA BI Zentimo (50.185,22) €-tako onartzea.
- 2.- Indarrean dagoen Aurrekontuko 601.511.02.01 partidaren kargura, 50.185,22 €-tako gastua onartu eta ordainketa agintzea.

U-1 SEKTOREAN, MANIPULADOS DEL ARAXES ENPRESAN BAIMENIK GABE EGINDAKO OBRAK

GAIA.- U-1 Sektorean, Manipulados del Araxes enpresan baimenik gabe egindako obrak.

IKUSIZ.- 2004ko Irailaren 29an, Udal Arkitektuak egindako Txostena.

KONTUTAN HARTUAZ.-Txosten horren arabera, 2004ko Irailaren 29an, egindako ikustaldi bisitan, Manipulados del Araxes eraikinaren eraikuntza hasia dagoela eta jadanik eraikinaren egitura guztia egin dela egiaztatzen da.

KONTUTAN HARTUAZ.- 2004ko Irailean, Construcciones Hugar enpresak Manipulados del Araxes enpresaren handipena burutzeko egitasmoa aurkeztu zuela Lizartzako Udalean obratako baimena eskatuaz, baina U-1 sektorearen hiritartze egitasmoa behin betikoz onartu gabe zegoenez eta legearen betekizunean, honen onarpena eman bitartean baimena eman gabe dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Esandako obrak udal baimenik gabe hasteaz gain, dagozkion tasak ez direla ordaindu, eta beharrezkoa den birplanteatze akta ez dela altxatu.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1978ko ekainaren 23an onartutako 2187/1978 Errege Dekretuaz onartutako Hirigintza-Disziplina Erregelamendikko 8. artikulua.

KONTUTAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri Legearen 21. artikulua xedatutakoaren arabera.

ERABAKI DUT:

- 1.- Construcciones Hugar enpresak, Manipulados del Araxes enpresaren handipena burutzeko, udal baimenik gae egiten ari diren lanen geldiarazpena agindu.
- 2.- 15 eguneko epea ematea, Construcciones Hugar eta Manipulados del Araxes enpresetako arduradunei ebazpen honen jakinerazpena egiten denetik, nahi diren alegazio eta agiriak aurkeztu ahal izateko, eta nahi bada legeak aurriztuen dituen frogen proposamena egiteko. Epea pasatakoan, Udalak dagokion zigor espedienteari, hasiera emango dio, akordio honetan agertutako ekintzengatik.
- 3.- Hilabeteko epea ematea, egindako lanak legeztatzeke udalaren aurrean.
- 4.- Interesatuei jakinaraztea azaroaren 26ko 30/1992 legeko 116. artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau administrazio bidean irmoa eta behin betikoa denez, haren aurka administrazio-auzi gaitako helegitea jar daiteke, beti ere bi hilabetetako epean, jakinerazpen honen egunetik hasita kontatzen, eta Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Dena den eta aipatutako artikulua arabera aukerako berraztertzeke errekurtsua jar daiteke, Alkatetza honen aurrean, jakinerazpen honen egunetik hasita, hilabete baten epean.

OBRATAKO BAIMENAK

CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA – 412-2004
FELIPE ARRESEIGOR LERTXUNDI – 414-2004
AGUSTIN ARENILLAS – 416 – 2004
M^a ANGELES GARCIA ORMAZABAL - 418-2004
JUAN M^a URKIZAR LARRARTE – 458-2004
LONTXO GOIKOETXEAUNDIA MARTINEZ – 507-2004
HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA – 508-2004
M^a CRUZ OTXOTORENA HUARTE – 530-2004
JOSE EIZAGIRRE TREKU – 532-2004

MATIAS MENDIGAIN LULUAGA – 534-2004

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, goizeko bederatziak direnean.